

azoka

Eguberrietako aparteko azoka egingo da gaur, Ordizian

Eguberrietako aparteko azoka egingo da gaur, egun osoan zehar, Ordiziako Beti Alai pilotalekuan eta Plaza Nagusian. Ordiziako Udalak aurten antolatutako bigarren aparteko azoka da hau, eta «sale-rosketa giro handia» izango dela adierazi dute bertatik. Erakusketak, lehiaketak eta bestelako ekintza ugari prestatu dira

gaurko, eta trikitilariak eta zanpantzarrak ere ibiliko dira kaleetan zehar. Goizeko lehen orduetik aurrera, kapoi, antzara eta indioilar erakusketak egingo dira Beti Alai pilotalekuan, eta pilotaleku txikian, berriz, orein, pottoka eta txahalena. Plaza Nagusian Euskal Herriko errege-sagar lehiaketa-erakusketak egingo da, baita bertako fruitu lehorren lehiaketa ere. Honenbestez, Gipuzkoako abenduko azoka egutegia osatuko da.



EGUNKARIA
Ordiziako Eguberrietako aparteko azokak lagun asko biltzen ditu.

musika

ANTZUOLA. Abesbatzaren kantu kalejira. Gaur, arratsaldean, herriko kaleetan zehar.

BERMEO. Izero Abesbatza. Bihar, eguerdiko 13:00etan, Frantzisko Deuna elizan.

BERRIOZAR. D. J. Jaialdia: D. J. Pedrosa, D. J. Cido, D. J. Mikel, D. J. Iker, D. J. K eta D. J. Oscar de Orosko. Gaur, gaueko 00:00etan, Gipuzkoa Etorbideko Bajeran.

ESKORIATZA. Trikitixa Eskolako ikasleekin kalejira. Gaur, eguerdiko 13:00etan, herriko kaleetan zehar.

HERNANI. Gabon kantak. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, herriko kaleetan zehar. Kantuz Abesbatzaren eskutik.

Gabon Gaueko erronda. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, herriko kaleetan zehar. Udal Musika Bandaren eskutik.

HONDARRIBIA. Haur gabon kanta jaialdia. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, udaletxeko arkupean.

Helduen gabon kanta lehiaketa. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Arma plazan.

Hondarribiko Txistu Taldearen alborada. Bihar, goizeko 9:00etan, Alde Zaharrean eta portuan.

IRUN. Kabigorri koroa. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, herriko kaleetan zehar.

LASARTE. Rude Taylor, M&M, The Funky Cabrones, Txarly eta Blami. Gaur, 01:00etan, Zulo aretoan.

OIARTZUN. Kean eta Carne Cruda. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Arragua auzoan.

ONDARROA. Gabon kantak. Gaur, goizeko 11:00etan, herriko kaleetan zehar. Txirimorraski ODLTaren eskutik.

Udal musika eskolako ikasleen gabon kantak. Gaur, eguerdiko 12:00etan, herriko kaleetan zehar. Udal musika eskolako antolatuta.

Gabon kantak. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, kaleetan zehar. Unanue kamara koralararen eskutik.

ORDIZIA. Oroith Abesbatza. Bihar, goizeko 11:00etan, elizan.

'Eguberri kontzertua'. Bihar, eguerdiko 13:00etan, Plaza Nagusian. Beti-Arri musika bandaren eskutik.

URRETUXU. Irimoazpi abesbatza. Gaur, arratsaldean zehar, Pagoeta auzoan.

bestelakoak

Ipuin kontalariak. Gaur, Abanto Zierbenako hainbat aretotan (17:30etik aurrera).



XOUSE SIMAL
Antton Irusta ipuin kontalariak gabonetako ipuinak kontatuko ditu.

Mari Karrere, Antton Irusta eta Doro ipuin kontalariak, gaur, Abanto-Zierbenan

Hainbat ipuin kontalariren emanaldiak izango dira gaur, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Abanto-Zierbenako aretoetan. Mari Karrere Gallartan izango da, arratsaldeko 17:30ean, eta Antton Irusta, berriz, San Fuentesen. Saioak Doro ipuin kontalariak amaituko ditu, 20:00etan, Las Karrerasen.

Goiargi Abesbatza. Gaur, arratsalde partean, herriko kaleetan zehar.

ZARAUTZ. Musika Bandaren kontzertua. Bihar, eguerdiko 13:00etan, Musika plazan.

Agautz taldearekin dantzaldia. Bihar, arratsaldeko 18:00etan, Musika plazan.

ZUMAIA. Gabon koroaren ekitaldia. Gaur, arratsaldeko 15:45ean, patxita Etxezarretatik hasi eta Parrokiara bitartean.

'Eguberri Kontzertua'. Bihar, Maria eta Jose ikastetxean. Udal Musika bandaren eskutik.

ZUMARRAGA. Goiargi abesbatza. Gaur, arratsaldean, herriko kaleetan zehar.

antzerkia

ANTSOAIN. 'Gus eta Gas'. Etzi, arratsaldeko 17:00etan, Antsoain antzokian. Ados Teatro taldearen eskutik.

DONOSTIA. 'Mi suicidio'. Etzi, gaueko 21:00etan, Antzoki Zaharrean. Tanttaka taldearen eskutik.

'Zintzoaren ametsa'. Etzi, arratsaldeko 17:00etan, Txofre plazan. Goloka taldearekin.

ERANDIO. 'Kokoroko'. Etzi, arratsaldeko 19:00etan, Ados Teatro taldearen eskutik.

IRUÑEA. 'Se ha caído una estrella'. Gaur, eguerdiko 12:00etan, eta bihar, arratsaldeko

18:00etan eta 19:00etan, Erraldoien Txokoen. Retablo de Figurillas taldearen eskutik.

MUTRIKU. 'Olentzero neguan dator'. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Txurruka plazan. Akelarre antzerki taldearen eskutik.

dantza

BILBO. Gaztedi dantzari taldea. Gaur, arratsaldeko 18:30ean, Karmelo plazan.

bertsolaritza

HERNANI. Bertso lata 2002: 'Mende baten aldarriak bertsoan'. Jon Maia eta Xabier Amuriza. Etzi, arratsaldeko 20:00etan, Kixkal tabernan. Antolatzailea: Iraulio Pantalone bertso kabiya.

bestelakoak

ABANTO - ZIERBENA. Ipuin kontalariak. Gaur, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Parte hartuko dute: Mari Karrere, arratsaldeko 17:30ean, Gallartan; Antton Irusta, arratsaldeko 19:00etan, San Fuentesen eta Doro ipuin kontalariak, Las Karrerasen, arratsaldeko 20:00etan.

BILBO. Bilboko XX. Artisautza Azoka. Urtarrilaren 6a arte, Areatzako karpan, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:30era.

ERMUA. Film Laburren 5. Jardunaldiak. Ostegunean eta abenduaren 30ean, Ermua zinematokian.

HONDARRIBIA. Helduen Olentzero lehiaketa. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Arma plazan.

ORDIZIA. Eguberrietako aparteko azoka. Gaur, egunean zehar, Beti Alai Pilotalekuan eta Plaza Nagusian.

ZARAUTZ. 'XIV. Jaiotza Mugikorren Lehiaketa'. Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, Gaztelekuan.

ikastaroak

ANTSOAIN. Jostailuak birziklatzeko lantegia. Gaur, 11:00etan, Gazte Berriak patronatuan.

AZPEITIA. 'Abentura korporala' ikastaroa. Urtarrilean hasita, hamabi saioko ikastaroa, astean behin. Pepa Bojo psikologoak emana. Interesa dutenek 943-157192 telefonora deitu behar dute urtarrilaren 8a baino lehen.

DONOSTIA. 'Nola idatzi telebista gidoi bat' ikastaroa. Urtarrilaren 7tik otsailaren 27ra. Asteazken hiru orduko bi saio. 'Nola gauzatu ideia', 'Nola idatzi gidoia', 'Komunikabiderako hizkera' eta 'Gaur egungo telebistaren beharrak' gaiak landuko dituzte. Informazio gehiago,